Editorial

# Katalogoa gaurkotzen

***"Utzi ditzagun gauzak beren lekuan, ez zeuden bezala" (Alfonso Sastre)***

*ETA 1991. urteetan egin ziren Euskal Herriko Gailurren Katalogoaren azken argitaraldien aleak agorturik zeuden. EMF-ak berrargitaratu behar zela erabaki zuen, onespen handiko tresna bait da oraindik ere, eta lehen ideia azkar egitea izan zen, detektatutako hutsune batzuk zuzenduz soilik. Baina, testua errepasatzean, tentazioa handiegia bihurtu zen: ezin zen aukera galdu datuak gaurkotzeko eta izenak berrikusteko. Eta, apurka, jasotako emari guztiak analizatuz, prozesua korapilatuz joan zen, batzutan kasu partikularren ikerketagatik eta beste batzutan irizpide-gairi buruzko eztabaidengatik.*

*Konbentziturik gaude merezi duela ondo egiteak. Katalogoa Ehun Mendien Sariketarako baliagarriak diren gailurren zerrenda baino ez bada ere, bere izakera hautatzekoak "garrantzia duten" mendien benetakotze ofizialaren balioa ematen dio, bertan ez dauden mendiak benetakoak ez direla ematen duelarik, zeinak jendea mendi horietara gutxiagotan joatea ondorioztatzen bait du.*

*Hau da, katalogoak erabilgarritasuna azaltzen du irtenaldiak prestatzeko eta ibilaldi-egutegia ezartzeko, herri osoko mendien hautaketa errepresentatzen bait du, eta Pirineo eta penintsulako bestelako mendizerren gailurrei buruzko iradokizunak eskaintzen bait ditu ere (azpimarratu beharra dago ezen , kasu hauetan, ohar-gisa besterik ez dela egiten, bestelako asmorik gabe). Beraz, bere ospea izugarria da, baina kontuz ibili beharra dago lar lotu ez dezan, duena baino garrantzi handiagorik eman ez dakion (Ehun Mendien Sariketarekin gertatzen den bezala: bere helburuak gainditu eta batzurentzat obsesioa bihurtu daiteke).*

*Orain amaitzen ari den lana aurreko berrikustaldiaren jarraipena da baina, kartografia behin-behinekoa den bitartean eta toponomia bere hasieretan dagoen artean, eta azken hamar urte hauetan zalantzagabeko aurrerapenak lortu arren, hau ez da beste aurrerapauso bat baino, EMF-aren (gailurren aukeraketarako), Lurraldearen Antolaketarako administrazioen (koordenatuetarako) eta Euskaltzaindiaren (toponimiarako) arteko elkarlanerako ahaleginean.*

*Toponimiaren gaia, batez ere, arreta handiaz eta berezitasun lokalekiko errespetoaz tratatu beharra dago. Zera, ahal den neurrian, aldaketa gogor eta presatiak ebitatu behar dira, baina zalantzak argitu ahala erabakiak hartuz joan beharra dago. Labur esanda, jatorrizko izenetara itzuli behar da, adostasun historiko zabala duten izenen jarraikortasuna onartuz.*

*Denbora gutxi barru katalogoaren bertsio berri bat argitaratuko da, aurrekoarekiko hobeturik oso, baina gauza segurua da hurrengo berrikustaldiak oraindik askoz ekoizpen hobeagoa eskeiniko duela. Ikerketa-eremuak zabalik jarraitzen du lurraldearen erabateko analisirako.*

# Actualizando el catálogo

***"Dejemos las cosas en su sitio, no como estaban" (Alfonso Sastre)***

SE habían agotado los ejemplares de las últimas ediciones que se hicieron en 1990 y 1991 del Catálogo de Cimas de Euskal Herria. La EMF decidió que había que reeditarlo, porque sigue siendo un instrumento de mucha aceptación, y la primera idea fue hacerlo rápido, corrigiendo solamente algunas erratas detectadas. Pero, al repasar el texto, la tentación se hizo demasiado grande: no se podía desaprovechar la ocasión para actualizar datos y revisar nombres. Y, poco a poco, con el análisis de todas las aportaciones recibidas, se ha ido complicando el proceso, unas veces por el estudio de casos particulares y otras por el debate de cuestiones de criterio.

Estamos convencidos de que vale la pena hacerlo bien. Aunque el catálogo sólo sea el listado de las cumbres que son válidas para el Concurso de Cien Montes, su carácter selectivo, le confiere el valor de acreditación oficial de los montes " que tienen entidad", de tal manera que los que no están incluidos en él, parece que no son verdaderos montes, lo cual influye en su frecuentación.

Es decir, el catálogo ofrece una clara utilidad para preparar planes de salida y establecer calendarios de excursiones, al representar una selección de montes de todo el país, e incluso ofrecer sugerencias sobre cumbres de Pirineos y otros macizos de la península (que conste que en estos casos es solamente a título indicativo, sin ninguna otra pretensión). Así pues, su predicamento es enorme, pero hay que cuidar que no vincule demasiado, que no se le dé más valor del que tiene (al igual que el propio Concurso de Cien Montes, que tiene el peligro de exceder sus objetivos y convertirse para algunos en una obsesión).

El trabajo que se está terminando ahora es una continuación de la revisión anterior pero, mientras la cartografía sea provisional y la toponimia esté todavía en mantillas, a pesar de los indudables avances alcanzados en estos últimos diez años, esto es sólo un paso más, en un esfuerzo de colaboración entre la EMF (para la selección de cumbres), las administraciones de Ordenación del Territorio (para las coordenadas) y Euskaltzaindia (para la toponimia).

El tema de la toponimia, especialmente, debe ser tratado con una gran dosis de prudencia y respeto por las peculiaridades locales. Se trata de evitar en lo posible cambios drásticos apresurados, pero hay que ir tomando decisiones según se van resolviendo las dudas. En definitiva, hay que volver a los nombres originales, aceptando la continuidad de aquéllos que presentan un dilatado consenso histórico.

Dentro de poco va a aparecer una nueva versión del catálogo, muy mejorada respecto a la anterior, pero es seguro que la siguiente revisión ofrecerá un producto todavía mucho mejor. El campo de investigación sigue abierto al análisis exhaustivo del territorio.

**Txomin Uriarte**